

ki bestalde fisioterapilariak orain, batzutan, ikasten dutela hezur-zuzentzea baina ez beti, ez eta kirurgilariak ere.

Gaurko ixtripuez oso kezkatu da eta bere analisia zehatza da, bere bezeroen, edo gaixoen arauera egiten badu ere - ezen gazteak ere etortzen baitira ikustera eta ez bakarrik gizonak andrazkoak ere eta ez bakarrik baserritarrak kaletar asko ere - beraz lehenik berebil ixtripuak ipintzen ditu lasterregi (azkarregi) ibiltzen direlako jendeak, bereziki larunbateko dantzaldi-edanalditatik sartzen diren gazteak. Prentsatik eta bere eskarmentuetatik ateratzen ditu emaitza horiek. Andere ta hurrekin etxeko ixtripuak dira nagusi.

Kirolzaleen eta bereiziki Rugby-zaleen ixtripuak ondo ezagutzen ditu, belaunetatik hasita, anka ta oin ezurretako hauskura mota guztiak, nahiz meniskentzat ebakuntza gabe laser-ez egiten den, gehienetan gaixoa daunatuaren gana doa ebakuntzaren beldurrez ere, daunatuak dionez. Bukatzen du esanaz, alde batetik ere garaian gau et'egun hortan zebiltzala eta daunatua seme gazteak ez eta azkenik bere jakituriak ondo zahartzen lagundu duela.

2.5. ONDORIOAK

Daunatuaren ofizioa ez dirudi Iparraldean galtzera doanik nahiz inor ez den izen horrekin agertuko, baina fisioterapia-aren soineko azpian. Jakituri horrek ziurrik badu zerbaiteko egiteko aintziñako barberuek ikasitako erabilkekin eta beste lekutan aski zehatzki erakutsi dugun herri-oroimenean geratu den jatorriarekin, alegia Erdi-Harora ezker Agerretarrak lzuraren egon direla hezur zuzentzen eta eskarmentuekin beren jakitate hobetzen, eta ondokei ematen Augustok semeekin egin duen bezala: sailkapen horma zaletasunei gustatu ala ez hemen dakusagu ez dela herri-sendatzaille ta akademia-sendatzaileren arteko mugarik; gure kasuan herri-sendatzailleak dira fisioterapilari bilakutzen, baina badakigu sendagile batzu Frantzia dabilzala "daunatu" esku trebetasun ta jakituriaren ikasten eta erabiltzen.

Gure Zuberoako familian eta orain 50-70 urte dituzten gure lehengusuen artean lau badira Agerretarren eskutik igaro direnak, eta ondo irten egin direla ez baitute ez ondokorik ez porrotik ezagutu beren sendabidean. Orain hauskura bat sumatzen denean, askok Agerre-ren Zuberoako semeari dei egiten diote, baita erremedioek sendatzen ez dituzten min batzuentzat ere, hala nola erreumiak eta bizkarminak, eta hauskura ondoko biureskuratzetan. Lanaren ez luzatzeko ez gara Agerre-ren semeen gana ibili galdezka eta, aitzitik diona ta gure herritarrek kondatzen digutena aski zaizkigu, jadanik semearen esku artetik bi askazi gazteago igaro baitira.

Kondairan "daunatu" aipamen bereizirik ez dakusagu De Lancre-ren gan XVII. mendean, nahiz beharbada "saludadore" izenpean epaitzen dituen horiek halakoak izan. Francisque Michel-ek ordea, 1857.an herri-sendatzaille sendagileen arteko erlazioen hari-burua ematen digu hobeki zehaztuz eta gaudituz azti-sendatzailleak sorginez bereiziz

"Sorginak, diotenez, nahi duten itxura har dezakete, haizearen lasterrez urrun-urrunera joan, beren gorputza gantzugailu batez igurtziz. Naski **azti** delakoan alderantziz gaizkiegileak dira, lehenek sendatzeko dohaina daukatelako **enpiriko** kente bat da (aztiak) eta fakultate sendagileek baino arrakasta gehiago daukatenak".

Bi gauza ohar genezake, aipatzen den gantzugailu hori, Gaskoniako Tolosa Medikuntza fakultate laborategiak konpondu zuela, aintzinako errezetaz eta L.S.D.aren gisa, airean hegalez ibiltzeko ilusioa ematen duela konturatu ere, baina sorginen hau bazter utzita, ikusten dugu herri-sendatzaille (berak azti dio) delakoak XIX. mende erdian oso lanpetuak zirela Euskal Herrian, eta jarraitzen du:

"Euskal Herriko sorginen Erregea edo bederen holkotzat daukatena, aztia da; Donibane Garazi ondoan Donazaharren bizi den gizon zaharra da."

Hemen gainera genezake beti Santiagorako bide ertzean gaudela eta hortik hurbil dagoela gaur ere Jutsiko "Jinko Txipia" gaitz guztiak sendatzen dituenak. Hona zer dion Fr. Michel-ek gizon hortaz:

"Armada mediku baten seme eta holako baten anaia da, ta berak sekulan sendakuntzazko ikasketak egin gabe sendatzen ardienez eta diru lorpenez ederto, praktikatzen du.

Nahiz ez duen ikasketarik egin, herri-sendatzaille horrek sendeak mediku ditu, eta agian, Fr. Michel-ek gehiago galdetu bazuen, holako "daunatua" kastakoak ziren aurride guztiak. Gure gizonaren lorpenak kondatzen dizkigu laburzki:

"Behin baino gehiagotan "benetan sorgin" ez den herri-sendatzailleak, erabat sendagilek utzitako gaixoak sendatu ditu; horrela errege bat haina zoriontsua da, profeta baino ospetsuagoa, ezen Donazaharren fama haundia baldin badauka, ospea herriaren muge-tarino irixten baitzaio. Jendea urrundik aholku bila datorkio, eta zernahi gauzetaz erantzun dezake".


(Fr. Michel *Le Pays Basque*, Paris 1857, 151 orr.)

Bai, hemen ere, gaurko Jutsiko "Jinko Txipia" petrikillo delakoaren ospea dakusagu, baina "guzti-sendatzaille" horiek ez genezazke "daunatu" sailean sar, ezen azkenean hezur-zuzentzailea fisioterapilari zahar mota bat baita.

3. SAINT JEAN INCHAUSPE, "Mehatz" "txingola sendatzaille"

Saint Jean Inchauspe, "Mehatz" Undüreinekoa

Azal-min Larvii-min sendatzaille



Saint Jean Inchauspe "Mehatz"

3.1. BERRIEMAILEAREN BIZITZA

Behar deizüt galtheGIN zure izena?

Saint Jean Inchauspe

Eta zointakoa. Zer etxetakoa?

Undüraine Mehatzean sortua

Eta etxe hau.

Etxe hau amaren etxondoa düzü Landetxeberria

Etxe zaharra düzü?

Bai, badakit lehenago Pierre Landetxeberri bat protestant izan zela, eta hebertik püntü batez Sorhuetara joan zela bizitzera, bena amaren gaintitik askazi güntükezü, mentüraz.

Etxe hau ederki berritü düzü

Ba bena ama zentü gabe, aitzinean den etxe berri hori egin ginizün.

Zer adin düzü?

Berrogeitahamazpi

Beti kartiel hontan egon zira?

Bai, ez nüzü hürrün joan, soldakoka Marrokin egin dit, eta kurritü nizalarik, Bordelera, Tolosara, Pauera.

Eskolan egon zinena

Bai "certificat" erartino, gero hebegainti ez züzün kolejio dohainik eta ni etxeko geia primüa nündüzün. Bena 1966. artino holaxe laborantxan egon nüzü, aitaren etxondoan.

Eta laborantxaren üztearekin?

Amaren etxondoala bizitzera jin nündüzün (nintzen) bena orai berri artino aitaren etxondoko lürrak joanarazten nitizün, bi ofizio banitizün.

Laborantxa ez nizün behin betiko ützi, ber denboran üzinan (fabrikan) lanean erauntsi dit; lehenik Maulen eta geroxeago Onizen "Emac" fabrikan; badizü hogeitahamar urte langile nizaia, eta kautxuan ez düzü ofizio aisa..Erretreta behar ere hebertik hiru urte. Hamazortzi urteak gabe üzinan nintzen.

Zer mintzaje badakizü.

Uskara, lanean güti pratikatzen dizügü, doidoia irakurtzen badakit, frantsesez ezkribatzen eta irakurtzen dit aisago.

Ezkontürrik zira eta haurrak badütüzü?

Bai, ezkontürrik bata eta pe horietara joanik, Bordelen eta hor gainti.

Hurrek üskara badakieia?

Ez ama manexina dizüe (be nafartarsa) eta alegia zibero-tarra mintzaje itsusia dela ez düzü ez enekin ez hurrekin üskaraz mintzatü nahi izan..eta Undürainen ez düzü moda laborarien artean hurrer üskararen erakatea.

Eriekin zer mintzajetan ari zira?

Uskaraz edo frantsesez.

3.2. ELKARRIZKETA GIROA. J. Inchauspe, azalmin sendatzailearekin

Gizon honek fabrika batean lan egiten baitu Maule albo-ko Onizen, arratseko bitatik hamarretaraino deitu nion eta han goizeko bederatzitan egoteko ordua hitz hartu genuen.



Inchauspe jaunaren etxea, XVI-XVII.mendean Leizarragaren laguntzaile eta jarraitzaile "higanaut" etxea izana.

LANDETXE BERRIA, Undürainen

Han zegoen baratzean. Etxea ezagutzen nuen hor ez zegoen batean, haren andrearekin egon bainintzen, ikusteko baldintzak finkatzen.

Argazkian agertzen den etxea zaharra da Zuberoako kon-dairan, ospetsua horko etxeko jauna protestantea eta Leizarragaren erlijio-kide, adiskide izan zena XVI. mendean; etxe hartaz gelditzen den zatia ederki berritua da, kanpotik eta barrutik, alboan dagoen aintzinako ikuilluak XVII-XVIII. mendeko dirudi.

Etxe zahar horren aurrean "moderno" badago, ama hil baino lehen eraikia, baina ama hil ezkeroko etxe zaharrean nahiago dira bizi.

Baratzea utzita, sukaldean sartuko gara, altzari zahar ederrez ornitua, erditan moda zaharreko mahain lodia. Leku hau da, bere pratika egiteko lekua; eta alkietan esertzen gara, hortaz iharduteko. Gizona telefonuan apur bat uzkurra, baldin bazen, nire bi osaba, eta izeba herrian eta herri au-zoan ezagutu baitzituen, bereala lasaitu zen, oso baketsuki erantzun dit beti lasaitasun osoan, **grabatzen dudalarik.**

Galdeketa: Herri-sendatzaile: Larru-minen sendatzaile (Txomin Peillen-ek asmatua)

- Noiz hasi zinen jente sendotzen?
- Hatsarretik ezagütü düzüa kanbiorik? Zoin? Jente haboro? Jente süberte haboro?
- Zer eritarzün süberte senda ziniro?
 - (txingola
 - (zauri
 - (min sühartü
 - (gangrena
 - (odoluri
 - (ekzema
 - (bukea
 - (ninien urterminak
 - (ütsularrü, itzemin, erheraki
 - (marrükak..otsoak..babak, mandoak
 - (erradürak
 - (inhardürak..hazkordiñak
 - (begietako minak, betarroak

- Min horietarik kanpo ez badüzü, deuse gabe sendotzen emaiten düzüa aholkü zonbait jenteer? Xahütärzünaz? Erremedioez?
- Bedeziek ere aitortzen dizüe, sendozalearen ganako fidantxak, erremedioak bezainbeste egiten düala, eta zük erremediorik ez düzünaz gain potere bat badüzüa?
- Noiz kontü arrandatü zinen bazünuala?
- Zer da zure poterea korpützetik ala gogotik jiten da?
- Korpützetik baldin bada, esküetan, larrüan orotan badüzüa?
- Gogotik, ixpiritütik baldin bada, nola igaranarazten düzü. Hítzez? Elestatzez ala ixilik egoitez eta zure gogoa azkartzez eta biltzez minari baizik ez pentsatze-ko?
- Badakit erabilka süberte hanitx, Ligin izigarri ontsa kausitzen zizün Arjelek Ligi Hurjüntako nausi zaharrak, jenteak bizkarrean karreatzez, besteek horrenbeste aldiz, baratzearen üngürüa eginarazten dizüe, beste batzük minaren kontüa batetik bederatzira, eta gero gibelka, Basabürüan erran deitaden gisa. Zuretako zer da beharrezkoena, erraiten dena edo otoiiza, egiten dena ibiltea edo karreiatzea, ala beste zerbait?
- Zük zer erabilka düzü?
- Zer pentsatzen düzü besteek egiten düenaz?
- Erlazione honak badütüzüa, bedeziekin? Bedeziek eriak igorten deitziela?
- Jenteak berez jiten dira? Nola? kausitzen düzüla hola jakinik? Adiskide edo askazi batek igorririk?
- Lehen alditik sendotzen dütüzüa?
- Uste düzüa larrü-min horietan, bizpahirur bedezi eta sendozaleen ikustea hon dela?
- Gibel so egiten düzünean zer pentsatzen düzü zure antzeaz, zure poterearen erabilteaz?
- Jentea hürrüntik jiten ote da? ala kartieleko Eüskal Herriko jentea dea?
- Badüzüa zühaurentako erremediorik begiratzen düzünik?
- Zure poterea norbaiti igaranarazten ahal düzüa? Badüzüa etxen ondokorik?

3.3. ELKARRIZKETA

(euskara batuan sintesia)

Andere batek, berak "txingola mina" eduki ondoren sendatu zuen eta esan zion, **poterea** zeukala sendatzeko, baina ez zezala praktika bera hil arte. Eta soldadutzatik sartu zenean, Maddalen hura hil zen ezkerreko saiatu zen eta harek irakatsi "orazione" edo formularekin (1.)

Senitar-tean ez zen lehen sendatzaile modukoa aurretik bazekiten ura topatzen urritz sardearekin ta gero pandularen (2.)

Hasieran baino **jende gehiago** ikusten du, baina gorabeherekin, eta zailago da haien sendatzea (4.)

Berez jendea etor liteke, norbaiti entzunik edo batzutan ere Mauleko **medikuek bialtzen** dituztelako (5.)

Leku askotatik dator jendea, urrunenik Parisetik gero Zubero, Nafarroa beheratik eta Biarnotik ere, baina "Larrumin

sendatzaile" horrek ez die beren jatorria ez eta beren deitura izenak galdetzen, berek nahi badute beren burua aurkezten dute (6.)

Ez da **beste azalmin sendatzaileez** jakinminetan gurea; bakarrik - besteek berak haina potere daukatelarik - aitortzen du batzutan besteek gaizki atotsitik, gela zikin batean haren gana etortzen direla (7.)

Zer gaixo sendatzen duen? Ez bakarrik, zona (txingola) baina ekzema, mikosiak, tiña ariña, begigorriak, eta ninien buruko larru mina lehen urtean (urterminak), hots alergiak, berak dioenez (8.)

Aholkurik ematen duenez? Gaur, jendeek berak baino hobeki omen dakite, baina eskatzen diete ez alkoholik ez kaferik hartzeko, eta xaboi hutsa (Marseillakoa) edo farmazian erosten den mota bat erabiltzea, eta ez pomadarik (9.)

Gero Bordele ondoko sendatzaile batekin gertatua kontatzen du eta andere ertsuaren nerbioak sendatu nahiz, denbora berean senarrari egin nahi izan ziola baina pandula ez zitziolako ibiltzen esan zion gure larrumin sendatzaileari "adurra zeukala", **fluidoa** zeukala (11.)

Bere poterea buruko ideiazkoa dela dio, nahiz sendaldian ez duen hitzik zuzentzen gaixoari (13.)

Praktika. Lehenik **mina ezagutu** behar du eta beste larruminak bazter utzita, zonarekin, txingolarekin bederatzit mota sailkatzen ditu, itxuraren eta lekuaren arauera.

Lekuen arauera, bizkarrean, bularrean, bizkarondo edo lombuetan, aurpegian. Eta **itxuren** arauera, sarna moten arauera: gorridura, plakak, aletxoak, pikorrak, zornadun etagabeak, suhartuak ala ez (14.)

Nolako oinazea den esaten dit (15.) Zainak (nerbioak) hukiak direla, buruko mina ematen duela (16.)

Jendei **galdetzen** duen bakarra da, noizdanik daukaten eta zer ipini duten minaren gainean (17.)

Gaixoei **eskatzen** eguzkitan ez egotea, minaren gainean ez urrik, ez gizenik ez pomadarik...kaferik eta alkoholik edan ez dezaten (18.)

Tratamendua, sendaldia. Sukaldean gaixoak hirur bider, mahain bati buelta ibilarazten ditu, aldi bakoitzean jira bat et'ardi (inguru bat eterdi) eraginaz, baina gaixoarekin batean ibiliko da.

Zeremonia horren hasteko **larruzko gerriko** beltz bat gaixoaren lepo (sama) inguruan ipintzen du, esku batz eutsiko duena eta bestea eskua ematen dio. Jira egiten abiatzen delarik dio

"Mina lotzen hait"

Jira eterdi eginda gelditzen dira sendatzailea eta gaixoa, beti elkarren parean egonki, gerrikoa kentzen dio lurrera botatzen esanaz

"Mina deslotzen hait, lurrera botatzen hait, hor egon!"

Hori esanda **Pater bat** errezatzen du. Eta bigarren jira berdina emanaz, hitz berdinekin, jesto berdinekin eta hirugarren inguru batekin bukatzen du (19.)

Aintziña jentek **otoitz bat** esaten zuten, gaur ixilik gertzen dira (21.) Lehenago ere eta duela bost urtetaraino gaixoei jarraitzen zuten eskatua, alegia **eguzkia jaiki baino lehen** eta **itzali ondoren** etortzea. Gaur erreztasun gehiago delarik kurritzeko, baina zoriontsuegi direlako, nahi dutenean

etortzen dira, berdin bazkal ordutan; garai batean fabriketako langileak zirela ta, urrundik zetozenak zirela ta, hori onartu zuen sendatzaileak, eta berdin sendatzen ziren gaixoak, baina oraintxe nekazariak ere, beren ordutegiak dituzte, eta nahi duten hutsartean, astiroki etortzen dira (22.)

Sendatzeko poterea daukate berek "txingola" eduki dutenek, eta **bizi guztian gordetzen** dute (23.) Batzuk besteek baino lorpen hobea daukate, baina konfiantza arazoa da.

Beste minik sendatzen duenez?

Suhartua ez denaz gain, tiña eta azkenik porlan negal bat sendatu egin du. Azken urtean nerbiotatik gaixorik zeudenak etorri zitzaizkio, badaki ez dituela erabat sendatuko, baina konfidantzaz, baketuz hobeki lo egiten dutela aitortu diote.

Aroaren eta bizi moldeen eragina

Aurretik esan du, "jenteak zainak airean" nerbio bizi direla gaur eta udaberriko edo aro aldaketako gehitze horrez kanpo, azal-min emale stress nagusiak lerrokatzen ditu, esate baterako batxillerato garaian azken urteko azterketen garaian, ekain-uztailan, urtero hamar gaixoz goiti ikusten duela gazteetan, bestalde zaharragoetan, ezkonduetan, lagunaren heriotzak, haurren heriotzak emandako txingolak ikusten ditu (25.)

Esate baterako zonaren etorria zein da?

Barizelaren antzeko virusa da airean dabilan, agian jende gehien gorputzean dabilana, baina norbaiten ahulezia, flakeziak baliatzen dena nasaitzeko eta agertzeko Txingolaren kasuan, herpesean bezala gertatzen da, baina lehena mingarria da, oinaze bizien emalea, bigarrena ezer gutti (26.)

Besteen sendabideak

Beste sendatzaileak badira Zuberoan (gehienak Pettiarren): denetara bospasei, badaki lehenago - lodiegi ez zirenak - bizkarrean erabiliak zirela, gehienak baratzeari inguruka erabiltzen zituztela baratze xendeen bidez gurutzak eraginez, hori zen egiten Basabürüan ere, baina berak Biarnoko ohituraz egiten du, nahiz euskalduntsa batekin ikasit duen (27.)

Beretzat gerrikoak ez du eraginik, sinbolikoa da, zer ikusia du gaitz nagusiaren izenarekin, ezen Pettiarrean **zindre** darabilaten hitzak, okzitano hizkuntzan "gerrikoa" esan nahi baitu; eta berdin Basabürüan darabilagun hitzak **txingola**, euskarazkoa, "lokarría" da (27.)

Bearnes ikasitako "otoitza" ematen du eta hor euskarazkoaren alderantziz Jainkoaren aipamena badago (29.) Eta oso okzitano on eta zaharkituan dago formula hau:

Txingola gerrikoz lotzen hait
deslotu hadi
senda hadi hementxe berean
nik gerrikoa lurrera botatzen dudana gisa
Jainkoak hala nahi dezala. Amen
(Ikus. jatorrizkoa, "corpusean")

Euskaraz ez da oso berdina (Ik. euskarazkoa "corpusean")

Aintziña hiru sendaldi nahikoa zen eta lehen alditik mina legortzen ikusten zen, **orain** gehienetan **bost bider** etorri behar dute. Arrazoiak ematen ditu.

1. ik., aintziña jende flakuegia ez zela bizitzen orain bai.
2. ik., aintziña jenteek erremedio, sendagailu gutti hartzen zutela.
3. ik., Jendea orain nerbioosoagoa dela, eta errez etsitzen dutela (30.)

Ez du sineste haundirik elektrizitate eta makinaren bidez menbroen mugimendua bireskuratzeko, hezur-zuzentzaile baten gana ibili zen, eta masaiak hartu, behartu zitzaionean (31.)

Homeopatiak ez badu onik egiten, ziur gaude ez duela gaitzik egiten, baina **alopatiaren** erremedioek batzutan kalte haundirik egin dezakete (32.)

Bi baldintza nagusi ikusten ditu Inchauspe jaunak sendatzeko, jendearen **nahikunde**a, eta sendatzailearen gan daukan **konfidantza** (aurretik esan du edariari eta janari **kasu egitea** beharrezkoa dela) Horregatik nerbio edo burutik gaixo direnei sendagailu gehiegi, sorgor emaleak hartuerazteak nahikunde hori kentzen dietela, beren minean sartuz. Uste du halere sendagailu apur batek ez duela minik egiten, baina gogoz kontra dabilana erremediatzen zer nahi gisaz ez da sendatzen, baina etsipenean amiltzen (33.)

Larrumin horien **hereditaterik** badagoenik ez du uste (34.)

Ez dute ez **hotzak ez beroak** eraginik berak ezagutzen dituen azal-minetan. 1989.ko negua oso beroa izan da eta udaberri pasatu gara konturatu gabe, aldaketarik ez izate horrek, dirudenez, txingola kasuak gutxitu ditu (36.)

Errepikatzen ditu **bere sendatzaile legeak**, minaren ondo ezagutzea, gaixoa ondo atostea, pazentzia, garbitasunean lan egitea, baina gaixoen artean azken bost urtetan urduritasunaren haunditzeaz eta sendatzailearen ganako ezaxola haunditzen dela nabaritu du (37.)

Urrundik, **telepatiaz, telefonuz** edo idatziz **ezin** dezake norbait artatu, ez sendatu, eskuz huki, ikutu behar du, horregatik Parisetik datozenak, herrian pentsioa hartzen dute (38.)

Apur bat pentsaketatu ondoren Inchauspe jauna konturatzten da, gizon baino **andre** gehiago dakusala, **haur eta gazte** ugari ere bai (39.)

Berriemate hau oso emankorra eta baikorra izan da, bere poterearen mugak badakizki, apala da, baina bere lagun zaharra eta herritarra den Etchebarre medikuari aholku eta xehetasun eske ibili da askotan. Ez du iñoren erdainurik agertu nahi.

Gizon bezala oso baketsua, euskara eder eta goxo batean mintzatzen dena da eta nahiz ez nintzen gaixo bezala hara joan, asko lagundu ninduen Undürainen Inchauspe jaunaren etxean hartu bake giroak, beste mediku aberats baten harrokeria jasaiteko, handik ordu bete.

Azal minak

(Zubereraz elkarrizketa)

1. Noiz hasi zinen jenteen sendotzen?

Banizün hogeita hirur urte..Eta aitzinetik ere norbait bazüzün hortan ari zena emazte bat eta erran zitazün, orazioneak irakatsiz geroz:

"hi, hasiko hiz bena ni hil ondoan baizik" ez lehen eta soldado zerbütükük landa, eta hantik sartü nintzenean hil züzün hura.

2. Lehena zinen zure familian?

Askazitan bazütüzün aitzinetik ütürriak eta pützüak hazamaiten zütienak, ürütza edo pandüla erabiliz bena eni jin zitazün poterea zindrea (txingola) üken beinüan, eta emazte harek erran beitzeitan?

3. Eta nor zen emazte hura?

Maddalen Archimon Zedazeneko etxek anderea züzün, eüskaldüntsa bat, biarnes batekin ezkontüa.

4. Eta zer kanbio bada lehendanik, eri gütiago ala ez?

Ez hanitxez haboro (gehiago). Gorabeherak badütüzü, bena lehendanik ez düzü kantitatean kanbiatü, bena ürriago, zailago, lüzeago erien sendoaraztea. Bardin hilabetean hamar bat ikusten dit edo bizpalau, eta ber egünean bospa-sei.

5. Nork igorten (bidaltzen) dütie eriak zure gana?

Mauleko bedezi (sendagile) horiek jente batzük alkarri erraitez.

6. Nontik jiten (etortzen) zaitzü eriak (gaixoak)?

Bardin Basabürütik, Garazirik, Biarnorik eta Pariserik ere bakant batzü, bena üsüan ez diet galtegiten nontik horra diren, zer izen düen, berek kontatzen ditazüet nahi badüe.

7. Nor bada besterik txingola sendozale?

Mintikilen badüzü bat Etxart, Maulen beste bat Lopez, emazte bat alargüntsa bat; gero zera Gotaiñen norbait jin zitazün hartarik landa eta ez zela ontsa eginik eta ez zela kontent - hala ziozün ja - gero jenteak zaiñak airean (nerbio-so) direlako holako erraiten dizüe, ene lanaz, agian ber gaüza. Ber arrazunekin jiten ziztazüt Manex herri horietarrik (Garazi, Amikuzerik), nola nahi soenatürrik (artatuak) nola nahi errezebitzen dütiela.

8. Zer eritarzün (zer gaixo) süerte sendotzen düzü?

Nik betidanik, zindrea (txingola) eta zindre sühartüa, alerjia zonbait, onddoak, legen sühartüa, urteminak; begigorriak eta nigarroiak sendotzen ditit, bena ez begiko xuria.

9. Kontseilü emaiten düzüa zure praktikatik kanpo?

Jenteek üsüenean ez dizüe galtegiten, zük beno haboro (gehiago) badakizüe, bena galtatzen diezügü jesto zonbaiten ez egitea, ez zernahi xabun erabiltea, badüzü farmazietan hanitx kario dena, bena hona Rougier Cavailles. Mina delarik ez likezü behar kaferik, ez alkoholik batere, ez gizenegi jan.

10. Bedeziek eta eriek (gaixoek) züetan fidantxa düe potere bat düzüelakoz?

Bai araeuz.

11. Noiz kontarrandatü (konturatu) zinen poterea bazenüala?

Aspaldian, eta emazte harek erranik, eta lehen persona sendotü nüalarik.

Bordelera...orai düala hamabost urte sendozale baten etxera emaztearentako joan, gero eni, bortizki galtegin zeitan banüanez zerbait, eta nik ezetz. Bigarren aldian emaztearen lagüntzera joanik, berriz harekin agitü eta erran zeitan,

"Et vous? (eta zu)

"Venez ici! (Zato hunara!)

Jarrerazten nizü, eta bere pandularekin ondoala hürren-tzen eta ene gana heldü ondoan pandüla eküratzen (gelditzen)..hu..zer da..kexü züzün..berriz hasten eta bardin pandüla eküratzen...so egiten ditazüt eta erraiten: ditazüt gizon txüt harek.

"Je ne peux rien pour vous!"

(Ezin dut ezer egin zuretzat)

"Vous avez du fluide"

(Adurra daukazu)

12. Zure poterea korpitzean (gorputzean) düzü ala bürüko indar bat, zainetako, ideien poterea?

Bürüko ideia bat düzü, ez dit esküetan, ez larrüan ez begietan indarra..zainetarik..

13. Nola igaranerazten düzü zure poterea?

"Eriarekin ibiltzen nizalarik" ixilik egoiten nüzü eriarri ez diot deuse erraiten, bena lehenik besterik igaraiten dizügü.

14. Eta nola praktikatzen düzü?

Jenteak heltzen direlarik, erraiten diet dela aisa izanen ez berehala sendotüko, bena etsitürrik jiten direner ere ez diezü gaitzik egiten holako eleen entzüteak. Konfiantxa eman behar ziezü haleikere eta uste dit, güneak, leküak hanitx balio düala hortarako, sükalte hontan egiten ditizat, eta bedezi sala bat beno alagerago ziezü, eta zonbaitek esken-tzen deien sükalte zikin, haur heotsegile horiek ez dütiela konfiantxa ezarten, ene ustez.

Gero eritarzün sübertea ezagütü behar düzü, bederatzü badüzü, minen eta leküen arauera. Bederatzü txingola mota:

mixika txipiekin	sühartüa
mixika handi batzuekin	ez sühartüa
gorridüekin	kiskiltüak
plaka handiekin	

Usüan günearen arabera klasatzen (sailkatzen) ditit

- hanitx korpitzean (gorputzean)
- bizkarrean
- bizkar zolan delarik, azpizaina hunkirik ziatika emaiten düana, axaleko herexak igaranik ere lüzaz sofritzen dizüe süerte hunekin, eta masaje beharra badizüe.
- bularrean (saihetsezür artekoa)
- begitartean (aurpegian) alde batetik.

15. Nola egiten dü txingolak?

Ukenik nüzü (eduki dut) eta harek txistatzen zütüt orratzak bazüntü bezala larrüan.

16. Bürüko minik emaiten dü?

Ez bürüko minik ez. Bena saihetsezür arteko zindreak sükarra emaiten dizü..hura düzü gaitzena..Jenteak kexü eta zaiñak airean jarten düütüzü ez beitzia aski laster igaraiten.

17. Eta mina ezagütü ondoan zer?

Galtegiten diet noizdanik düen, eta ene ikustera jin gabe zer egin düen. Eta zonbaitek pomada ezari dizüe edo bede-ziez emanarazi erremediorik hartü.

18. Eta zer galtatzen deezü (eskatzen)?

Gaixoa, deuse, erremedioak nahi badütie aitzinara hartü har betze, bena ez pomadarik ezar minaren gaiñen, ez hurik, ez gizenik..deuse ez. Ez ekian egoitea (ez eguzkitan). Kafé sobera edan ez dezeen eta ahalaz ez alkoholik.

19. Zer tratamentü egiten deiezü?

Sükalte hontan mahainaren üngürüan ibilarazten. Lepo üngürüan zintüra, gerriko beltz hori (erakusten dit larruzko gerriko beltza eskallera barrandan), eskütik hartzen eria (gai-xoa) eta alkarrekin parean lehen üngürü bat eginarazten diet erraitez.

“Min gaixtoa estekatzen hait”

Üngürü bat et’erdi egiten dit hola, gero erraiten dit

“Desestekatzen hait (deslotzen hait)!”

“Lürriat urtukitzen (botatzen) hait,
hor egon hadi!

Hori egiten dizit hiru aldiz, bakoitxean üngürü bat eterdi egitez. Azkenean Pater bat erraiten dit.

20. Eta jenteek zer erran behar düe?

Deuse ez..badüzü orotarik erietan. Lehen jenteak oro debot zütüzün, zeñhatzen (gurutzea egiten), otoitz bat erraiten zizüen..orai ez dakizü zer jente süberte düzün.

21. Zühauk ez düzü haboro orazionea erraiten?

Heek ez, bena nik bai, üngürü bakoitxean bat, edo gerrikoa botatü beno lehen. Etxen sükaltean hasi nündüzün eta heben bardin.

22. Bazena tenore hobea erremediatzeko?

Lehen erraiten zenien, eki jeikitzea beno lehen eta eki itzaltzetik landa jiteko eta jiten zütüzün, hoinez, bizikletaz, nolana; orai ez düzü - zük erranik hau edo hura eta autoak badütielarik - nahi düena egiten dizüe, eta gisala ahal due-nean jiten (etortzen) Heben haidürü (zain) egon behar düzü, lehen langileek estakürü horik bazitizüen, bena orai laborariek ere - ardiak behar dütizüe jeitsi (esnea batu) lehenik, behar dizüe hau egin lehenik - Jiten direnean hartü behar dütizügü eta sendotzen dütüzü haleikere.

Hatsarreaan hürruntik jiten zirenentako egiten nizün eta gero aüzotik jiten direnak hala-hala.

23. Txingola sendotzeko potere hori galtzen dea, denborarekin?

Ez dit uste..ez dit entzün agitürük...gero zonbaitek eriekin ez dizüe bardin kausitzen, poterea izanik ere. Uste dit lehen-danik txingola üken düenak baizik ez düela potere hori.

24. Beste minetan eseiati zira?

Bai Arübetar bat ikusi dit berriki, zimentaren (porlanaren) ekzema batekin, alergia dü, igaranarazi diot.

Psoriasis-a?

Ez hori ez.

Ezkabea?

Ez beita ikusten.

Tiña?

Tiña süberte bat, sühartü gabea sendotü dit haurretan...gero kasü egin behar dizü..ahal düzünez ala ez..esprabi behar dizü.

Bi zainetarik eri baditizat, bata Biarnoko P..ko eta beste Ziberoako O..koa. Ez direnean ontsa (ondo) ikusten dütit..Zenbaitek uste dizüe hilen direla ez badüe bi gaüez lo egiten..eta berahala erremediotara bena bi jente hurak jin zirelarik ez nündüzün hasi nahi..bena konfidantxarekin horra dütüzü eta hebertik hobeki joaiten. Zer egin behar da?

O.koak laur haur baditizü. Basatürük eta zaiñak aidean horra düzü eta hebertik igaran ondoan, baketürük, anpletürük (bareturik) lo egiten. Ez dizü haboro batere erremediorik hartzen eta artetarik jiten zitazü ikustera.

25. Sarsuak, aroak feitik (eraginik) badü, min horietan?

Bai haroak eta urtaldiak badütüzü. Igaran bedatsean (igazko udaberrian) anitx bazen, gero urte guziz, Martxo artean haboro (gehiago), aurtan ez hainbeste.

Bizi moldeak ere egiten dizü...zindrearentako pürü - ez haur txipien minetan - gazteetan etsamenen (azterketen) denboran izigarria badüzü, zonbait aldiz; gero maite den norbaiten hiltzearekin, kontrariamentü handi batekin.

26. Zertarik jiten da zindrea? txingola?

Herpesa bezala aidean den kozü, mikroba düzü Virus bat düzü; agian, jenteek oroek barnen badizüe, bena mikroba horrek zure flakezia batez baliatzen düzü eta eritzen (gaixotzen) zira: üztailan, etsamenak igaran berrian, igaraiteko püntü hortan hamar hamabost baditit urte oroz.

Herpesa deus ez düzü konparazione, ez beiti zindre, ekzema eta horiek bezainbeste min egiten. Gero flakezia kanpo ere xabunetek, eta xabu (jaboi) tzarrek sordeitzen (txarragotzen) dizüe.

27. Badakizüa besteek nola egiten düen txingola eta beste larrüminik sendoarazten badüe?

Ez nüzü batere kürios bena erien ganik entzünik badakit lehenago, lodiegi ez zirenak, bizkarrean kargatzen zütüela üngürüen egiteko, zonbaitek bokanas bat emaiten dizüe, eta baratzean kürütze egitez ibili arazten. Ez dakit ez...horiek zer inportantzia düen. Nik hola ikasi nizün Maddalen Zedaze-ren ganik. Ene uste zintüra badüzü "zindre"-k - Pettiarrean emaiten deiogün izenak bearnesez zinturaren izena delakotz... Zintürarik gabe, bardin lükezü esküa emaiten düzün ber. So'izü hortxe düzü zintüra zaharra aspaldikoa higatürük eta formülan "estekatzen erraiten beita"

28. Gerrikoak beno potere haboro likezü sendozalearen bürüak.

Bai, bai.

29. Eta züen gisako orazionea?

Maddalen-ek bearnesez batekin ikasi zizün eta erakatsi zitazün:

Cindre que te cinta

que descinta

guareish aciü medish

com jo deishi càder

questa cinta
volha Diu, Amen.

Emazte harek irakatsi zitazün..eta bearnesez irakasle
Undürainen bizi zen Bordato züzün..aspaldian hilik düzü.

30. Lehen alditik sendotzen dea txingola?

Hiru aldiz pürü jin behar dizüe, bena zombait aldiz bost
aldiz ere, geroago eta zailago düzü jenteen sendotzea, arra-
zu hanitxen gatik.

1. ik. Lehen jente flakü hanitx haur edo gazte denboran
hiltzen zütüzün..ez bazen hil eta berhala; eta orai
jente flakü haboro badüzü.
2. ik. Jenteek agian, erremedio hanitxen hartzera kostü-
matürük ez dizüe ez erremedioek, ez gure gisa erre-
mediorik gabe, lehen bezain laster kausitzen (lor-
tzen)
3. ik. Jenteak zaiñak airean (nerbioso) bizi dütüzü, eta ez
dizüe lehen bezala dolore txipiena onhartzen, pen-
tsa handi delarik!

Lehen eta düala bospasei urte artino lehen alditik ikusten
züntian minak idortzen (legortzen), orai ez.

31. Eta zühaur gaizki zirenean norat ari zira?

Besteen gisa, beharrüne handietan bedeziaren gana,
gero ezürretako gaüza horietan ez beitüe beti ezagützen nola
xüxentü behar diren, nahiago nüdüzüün eta kausitü ditazüt
Jutxueko daunatuak.

Bai eta hortxe Maulen kinesia (fisioterapeuta) den Agerre
hori, daunatua famillakoak badakizü esküen txestüala ezü-
rraren ezagützen, eta bere leküan ezarten eta xüxentzen.

Orai ari dütüzü elektrizitate ta mekanika horiekin alegia
zerbait egiten düela, bena ni ibili nintzen hamar bat aldiz,
Aguerrengana eta esküekin egin zeitan lan hura, hon züzün
(on zen)

32. Eta homeopatiak zer pentsatzen düzü?

Erremedioek hon edo gaizki egiten dizüe, bena homeo-
patiak ez dizü gaitzik egiteko arrixkürük, ez badü honik egiten
ere.

33. Eta sendatzeko, erremediorik ez delarik zer?

Bakoitzean nahikünite ta borontatea. So'izü bürütik ere,
zaiñetarik (nerbiotarik) eri direner lo egiteko erremedioak
emaiten ditiezü, bena ber denboran borontate ta nahikünite
oro elkitzenegi diezü; Inkaü bat e'lükezü gaizki, bena beren
drogekin jenteak hausten ditizüe.

Nik sendotzen dütüdan larrü-min horietan borontate
honak behar dizü: gogoz gainti jiten bazira ez dükezü on-
doaje honik.

Jenteak etsitürük, baratzen badira, morala berotü behar
ziezü..min gaitzak dütüzü..orozgain zindrea.

34. Uste düzüa askazgoa batetan aisago agertzen jiten dela, odolean dela?

Ez dizit uste. Etxebarre bedeziarekin, alkarrekin eskolan
egonik eta oro, hari galtatü nirozün, barizelaren gisako kozü
bat düzü, arlesara (oixtion) erran dügün bezala, zindrea.



Saint-Jean INCHAUSPE "Mehatz"

Bere senda-gelan, mahain gainean galdeketa eta grabaketa tresne-
ria utzi dut.

35. Borontateaz kanpo, batak besteek beno hobeki kausitzen düzüiea?

Eria zombait aldiz gogo honez horra düzü eta üngürüne
zikin, eta heots balin bada, egilea ez bada xahü, jenteek ez
dizüe plazerik eta ez dütüzü sendotzen. Hola biltzen diti
bestetarik jnik.

36. Hotzak zer egiten dü?

Ez dizü ez hotzak ez beroak eritarzün horietan indarrük, -
hotz alditan ere badütüzü - bena haro kanbioa düzü, eta
erran bezala Martxo altea, gorenük eritarzün horientako,
Aurten ez beita sarsu (haro) kanbio handirik izan ez düzü eri
hanitx izan.

37. Eta azkenean zer lege, zer arau düzü?

Konfidantza, batzarri hona, pazentzia. Jenteen tenpera-
mentüak, bizitzeak zale (laster) kanbiatzen ikusi dit azken
bost urteetan. Noiznahi jiten, eta kontseilüaz futitzen.

38. Norbait soenatzen ahal düzü, telefonaz, ezkiribüz?

Ez, iholaz ere..ez dit sekülan iseatü Pariseko eriak baditit
eta hantik jiten dütüzü gaüa lo igaraiten dizüe, pentsionea
hartzen, zombait eüskaldün, bena frantzimantak gehienak.

39. Zer adin düe larrümindünek?

Adin orotako hasirik urteminak dütien niniekin tiña düen
haurrekin, etsamenak igaraiten dütien, lycée-takoak, langile,
erretretatü, zahar; heltübada gizon beno haboro emazte
(andere), ontsa pentsatsez. Emazteak bezain beste haurrak.

Eskerrik hanitx

Ez deizüt gaüza handirik kontatü

**Ez, agian bena eri bat zer den egiazko bedezi zom-
baitek bezain ontsa badakizü, eta kausitzen düzün ber,
zure mereximentüak badütüzü.**

3.4. ANALISIA

Saint-Jean edo Joanes Intxauspe-ren kasuan, benetako
herri-sendatzaile bakarra daukagu, iñolako ikasketa, irakur-

keta ez duenik sendakuntza alorrean, bakarrik, bai Etxebar medikuaren aholkuak eskatzen dituenak, eta beste sendagileen gandik gaixok jasotzen ditularik, ospetsuena dena azalmin sendaketetan.

Bere erabilketetan nabarmenena da, etxe barruan egiten duela, bestek beren baratzen egiten dutelarik, eta etxe hori oso dotore, txukun, garbia dela, hori herri-sendatzaile horrek garrantzia ematen diolarik. Etxe horrek ere, eta familiak kon-daira luzea du ezen Landetxeberritarak XVI-XVII. mendean higanaut edo protestante euskaltzale bezala agertzen baitira; baina gure kasuan jatorriak, "odolak" zer ikusia omen du gizon horren poterean, berak dionaz.

Jendeak, gaixoak uste du Intxauspek daukan poterea bere azalmin gaixoa izatetik datorkiola, hain zuzen "txingola" ezaguna (zona) eduki baitu, baita euskaraz eta okzitanoz formulak dakizkialako; gero berak, agian, kristiar kutsua eman dio, Pater-ak otoiztuz.

Sinbolikaren aldetik "txingola", gerrikoaren beste izen bat izanki, gerriko beltz bat ipintzen du gaixoaren lepo inguruan eta lurrera botatzen mina balitz legean. Berak halere potereaz kanpo uste du gaixoaren konfidantxak garrantzi haundikoa dela, eta hura elkarrizketa labur baten bidez lortzen du, gaixoaren kezka, arreguren ezagutzeak eta gaixoak aitortzeak laguntzen baitu, haren esanez.

Galdetzen zaionean zer den txingola, Etxebarre sendagile, eskola lagunaren jakituriz dio barizelaren antzekoa dela, eta oinaze handirik eman lezakeela, bere poterez goxatu egiten dituenak. Martxoan gehienik gertatzea nerbioen zerbaitekin lotu egiten du, gero beste azalminik ere sendatu du ekzema mota batzu, baita dirudenez, azaletik baino nerbiotatik gaixo zirenak, baina anderearekin ez du ardietsi - beharbada gogorrago jota dagoelako - eta Paristikan ere etortzen zaizkio gaixoak, hango euskaldunen gandik jakinda.

Ekzema (legenaz) kanpo ninien buruko urteminak haurren tinak eta beste sendatzen ditu. txingola ordea bere oinarriko espezialitateak, andereak hukitzenago ditu gizonak baino, azterketa garaian ikasleak, eta andereak bezainbeste haurrak.

Badirudi garai batzutan lehen bezainbeste gaixo ikusten duela fabrika batean lan egiten duen herri-sendatzaile begiko horrek, bere "potereak" itsutzen ez duena.

Aholku asko ematen die jendei, zer saboin mota eros farmazian, ez eguzkitan egotea, kafe gutxi, alkoholik batere, alegia sendagileek gutxi edo aski ematen dituztenak, alegia kirioak baketzeko egoeran jar ditezten.

Bere txingola moten sailkapena bitxi da, alegia bederatz mota dela-ezen zenbakiak erabiltzen dituztenak sendatzeko 1-9 gero 9-0 egiten baitute. Okzitaniarazko formula harrigarria da, ezen okzitaniara zaharrea baita ez orain erabiltzen den dialekto frantsesuan.

3.5. ONDORIOAK

Azalminen artean, gaur irauten duen nabarmenena, eta alegia dena "txingola" da, eta hor Maule inguruan guttienik hiru herri-sendatzaile dabilta sendaketan, nahiz Intxauspe den ezagutuena. Sendabide horietan, egoeraren aldetik eta ibileraren aldetik hiru mota eman genetzazke, batean eserita edo zutik egiten dena, bestea etxe barruan edo baratzean

ibiliz egiten dena, azkena gaixoa bizkarrean garraiatuz egin ditekera.

Beste liburuan etxe-sendakuntza dihardugunean, berri emaleak esaten digute nola egiten zuten: (ik. Allande Artigau, Joanes Casenave, Marti Davant)

1. Orratza edo argizaia minaren inguruan erloiu moduan inguruka erabiliz eta zazpi edo bederatziraino kontatuz - txingola bat, txingola bi - edo honela jarraituz zenbakia beti minaren atzean ipiniz eta gero alde-antiz "bederatzitik batere" aldiraino.

2. Otoitzen erabilera, bakarrik edo azti formula batekin ibiliz, minari zuzendurik. Gero askok "murmuzika" uler-tezina darabilate, edo "Abe Maria ta Loria".

3. Sinbolikan. Lehenik gurutzearena, baratzean gurutze itxurako baratz sendetan gaixoarekin ibiliz, hiru bider edo "n" bider, berdin bidetxigor horietan eria garraiatuz bizkarrean.

Bigarrenik minaren sinboloa gerriko beltza lizateke (J. Intxauspe) edo oiha beltza (M: Davant-en arauera)

4. Orratza edo argizaia erabiltzen ez denean **eskua** hartzen du herri-sendatzaileak.

Jakingarria dena da, azalmin sendatzaile horiek ez dutela sekulan unkontu, gantzugailu edo pomadatik erabiltzen eta diotela pomadaren ondotik beren lana nekez egiten dutela. Halere aintziña azalminak ugariago zirenean, liburuaren hasieran Joanes Casenave-k aipatu gantzugailuak egiten ziren etxeetan, ezko, ezti, olio, sufre eta belar bereziekin. Holako gantzugailuen ohitura badirudi nahiz azalmin sendatzaileetan, nahiz daunatueta galdu dela. Gero ez da errez jakitea zenbateraino mende honen hasieran apotekariak "asmatzen" zituzten pomadak ez ote ziren herri jakituritik hartuak eta alderantziz etxe-pomada ospetsuak, noizpait fakultate sendakuntzatik irakurle batek herri-sendakuntzara igaro zutena.

4. ALLANDE ARTIGAU, Elixagarai-ek edasia "Sasisendagile ijitoak"

4.1. BOHAMESA SENDAZALEAK

Noiztenka ikusten ditiagu Ligin, bi emazte, bi emazte automobiler jinik eta etxez etxe ibiltzen direnak. Nüstenean (arestian) Borda zaharrenean ikustera joan zütian, alegia bere paralisiaz sendotuko züela - gizon hori aspaldixkan hemiplejia batek jorik, saihets bat paralisatürik dik, beso ezkerre eta zanko ezkerre ezin erabiliz, ez dik iholazko sendotzerik izanen, oraiko erremedioekin ja - eta prefosta bohamesa heek sinetserazi diek eginen züela.

Gero ez dakiat zer egin düen, basa otoitz eta jesto eta holako egin ümen düe, bena ez diagü hori ontsa jakin, eriak ere, harritürik zenaz gain, ez züan kasürik egiten. Komedia hori ez düe dohainik eman, B...zaharrai sei mila liberako txeke bat eginarazi düek eta joan. Artean, gizon zahar horren arrebak jakin dik zer igaran zen - eta kontüa bien izenean beita - jakin üken bezain sarri Atarratzeko "Credit Agricole"ra deitü dik eta bi emazte hurak, hara joan direlarik ez diek pakatü nahi üken.

Uste badük horrekin baratü direla gure basa-bedeziak Arra jin dütük eta arauz - bera zelarik - aski lotsarazi düe,